

## **Ikasturte berriarekin, erronka zaharrak.**

2015-16 ikasturte honetan eta Heziberriren bidez LOMCE legea ezartzen jarraituko omen dute gure ikastetxeetan: kurrikulum eta liburu berriak lehen hezkuntza osoan eta DBHko hainbatetan, lehen hezkuntzako errebalidak, erlijio ebaluagarria... Dakizunez, *Kristau Eskola* izan da EAEn lege honi babes eman dion eragile bakarra. Eta zergatik?: Jaurlaritzaren Heziberri proiektuaren atzean Hezkuntza Legea eta finantziario hobe egon daitekeelakoan. Txeke zuria nahi dute gaurko markoa baldintzarik gabe gaudituz. Baina kohesio sozialaz hitzegin beharra dago.

Ia bost urteren ondoren, ikasturte honetan ere gure hitzarmena berreskuratu dugu eragin osoz. Horrek esan nahi du urrian sinaturiko akordioaren puntuetako bati jarraiki, urtarrilaren 1ean, 2009ko taulen arabera kobratzen hasiko gara. Murrizketak amaituko dira baina negoziatio kolektiboan urte hauetan izandako geldialdiak gure eroste ahalmenaren galera ekarri du. Eta honek izan behar du abiapuntua, irailaren 30ean martxan jarriko den hitzarmen berrirako negoziatioan.

Aipatutako akordioak ahalbideratu du, seguruenez, ikasturtean zehar ere hainbat atzerapen kobratzea. Jaurlaritzak patronalekin adostutakoari eusten badio behintzat (2016ko aurrekontuen aurreproiektuan ikusiko da) Gogoratu, lansarien murrizketaren ondorioz 3 urte eta erdiko atzerapenak ditugula kobratzeke.

Gutxienez, atzerapen horiek kobratzeko horrenbeste ez dute itxaron beharko urte hauetan zehar gure ikastetxeetan hainbat alditan edo gaur egunean lanean egon diren edo dauden behin-behineko kontratudunek. ELA eta *Kristau Eskolak* Urriko Akordioa puntu garrantzitsu honetan zapuzten saiatu arren ez dute lortu. Salaketa judizialak bultzatuta, akordio baten bidez bere horretan mantendu da Akordioa.

Bigarren mailako kontua bada ere, CCOO-i esan behar diogu itsusia dela bakarrik zureak ez diren dominak zeure buruan jarri nahi izatea. **steilas** izan baita puntu hau salatzeke epaiketara joan zen lehena. Elkarrekin egin dugu lan hasieratik eta orain lortutakoa, gure ustez, ez da sindikatu batena: *otsailaren 28a baino lehen kobratuko dute beren lan-sarrietan murriztutakoa egun horretara arte harreman laborala amaituta duten behin-behineko langileek. Handik aurrera beren kontratuak amaitzearekin batera kobratuko dute, Urriko Akordioak zioen bezala.*

Kontu honetan ELAren jokabidea onartezina izan da hasieratik. Lehendabizi, negoziatioan izan zituen akatsak estaltzeko, **steilas** eta gainontzeko sindikatuentzat puntu hori oso garrantzitsua zela jakin arren kolektiborik prekarioena kaltetzen duen neurria adosten du Kristau Eskolarekin batera unilateralki eta formak gorde gabe; Ondoren, beste sindikatuak jarritako helegitea zela eta, arduragabekeria, gezurra eta alarmismoa zabaldu zuen sektorean; Azkenik, besteek lortutakoa bereganatu nahi du inolako lotsarik gabe. Hamaika ikusteko jaiok gara!

*Trakaskuntzan steilas*

[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eu